



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

Ingurumen Sailburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketako
zuzendaria

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Patrimonio Natural y Cambio
Climático

Erantzukizunpeko adierazpena
GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO LAGUNTZAK – eko deialdia

(Diru-laguntza eskatzen duen proiektu bakoitzerako bat bete behar da)

Entitatearen ordezkaria

Erakundea (sozietatearen izena):

IFK zk.:

Jauna/andrea, ordezkaria,

IFK zk.:

Nire erantzukizunpean, honako hau adierazten dut neuk ordezkatzeko dudako erakundeari dagokionez:

Erantzukizunpeko adierazpenak (5. art)

Lehena.- Bateragarritasun-adierazpena¹

Erakunde honek adierazten du proiektu honetarako laguntza-eskaeraren bat aurkeztu edo/eta beste laguntzaren bat jaso DUELA EZ DUELA (markatu dagokiona) eskaera egin den egunera arte, jarraian zehazten diren erakunde publiko nahiz pribatuetan, eta konpromisoa hartzen duela proiektu honetarako aurkezten dituen laguntza-eskaera guztien berri emateko:

Proiektua	Erakundea	Egoera	Eskatutako/ Esleitutako zenbatekoa (eurotan)	Diruz lagundu daitekeen BEZa (Bai/Ez)
		Ukatuta Izapidetze-prozesuan Emanda		Bai Ez
		Ukatuta Izapidetze-prozesuan Emanda		Bai Ez

¹ Eskatzaileak, beste edozein administrazioren dirulaguntza jaso badu, laguntza hori zer organok eman dion eta haren zenbatekoa jakinarazi beharko dio, nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari. Informazio hori emateko hamar egun balioduneko epea izango du, hura jaso duen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.



Onuradunak konpromisoa hartzen du administrazio zein beste erakunde publiko nahiz pribatuei xede bererako eskatzen dituen eta haietatik lortzen dituen laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera nahiz bestelako baliabide guztien inguruko informazio guztia jakinarazteko, bai eta eskaera aurkeztu dueneko diru-laguntza programetan BEZa lagun daitekeen ala ez berariaz adieraztekoa ere.

Bigarrena.- Diru-laguntzen deialdiari dagozkion zigorrak eta betebeharrak espezifikoen betekizuna²

Erakunde eskatzaileak, eskabidea egin duen unean, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Erakunde eskatzaileak eskaera egiten duen unean ordainduta edukitzea dirulaguntzen itzulketa-obligazioak (Dirulaguntzen Lege Orokorra, 13.2 g. artikulua)

Erakunde eskatzaileak ez duela zigor- edo administrazio-bidetik laguntza edo diru-laguntza publikorik jaso ahal ez izateko zigorrak, eta ez dagoela diru-laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen inolako legezko debekuren kasuan.

Erakunde eskatzaileak diru-laguntza eskatzea erabaki duela eta laguntzaren bidez ordain ez daitekeen zatia finantzatzeko duela.

Erakunde onuradunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutako printzipioak (3. artikulua) eta betebeharrak errespetatzen dituela. Bereziki, betetzen duela 16., 18.4. eta 23. artikuluetan ezarritakoa.

Erakunde onuradunak diru-laguntza itzultzea hitzematzen du, kokagunearen berrerabilerak gainbalioak eragiten baditu edo diruz lagundutako jarduketaren kostua hirugarren bati arrakastaz jasanarazi bazaio.

Hirugarrena.- Tokiko merkataritza-sozietateak, tokiko garapen-agentziak eta beste toki-erakunde batzuk erakunde eskatzaile izatea

Eskualdeko erakundeak espresuki izendatu dituztela parte hartzen duten udalerrietako alkateek, dirulaguntzaren xede den jarduna egiteko.

Baldin eta erakunde eskatzailea tokiko merkataritza-sozietate bat, tokiko garapen-agentzia bat edo bestelako toki-erakunde bat bada, kapital publikokoa dela, bazkide nagusiak udalak direla, eta udalerrri partaideek erabaki dutela diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduketa egitea.

Laugarrena.- Ibilguak garbitzeko eta ibaiertzak berreskuratzeko proiektuetarako eskaerak

Erakunde onuradunak jarduketa horiek gauzatzeko aukera Uraren Euskal Agentziarekin adostu duela, eta horretarako lankidetzeta-protokoloa sinatu dutela.

Bostgarrena.- Iraunkortasunerako hezkuntza-proiektuak egiteko eskaerak:

Erakunde eskatzaileak Eskolako Agenda 21 ezartzen ari den bere lurraldeko ikastetxeren batekin koordinatzeko konpromisoa hartzen duela.



Seigarrena.- Natura Sareko espazioetan gauzatuko diren Ondare Naturaleko Ieroko eskaerak - Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako dirulaguntzetarako obligazio espezifikoak

Eskatutako dirulaguntza jasoz gero, bere gain hartzen ditu Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren kofinantzaketak sortzen dituen obligazioak.

Deialdi honetan aurkeztutako proiektuak ez daude Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) aplikazio-eremuaren babespean.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatu du:

(Ordez kariaren sinadura)